



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilak 21

Vitoria-Gasteiz, 21 de abril de 2020

Lehendakaritza

**212.500 €-tik GORAKO LAGUNTZAK ONARTU DIRA MEMORIA
HISTORIKO ETA DEMOKRATIKOA BERRESKURATZEKO
EGITASMOETARAKO**

- **137.500 € bideratuko dira Memoria Historikoa berreskuratzeko egitasmoetarako, Memoriaren Ibilbideak sortzeko eta sinbologia frankista kentzeko, udalek eta tokiko erakundeek gauzatzekoak**
- **Memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratu eta ikus-entzunezkoak egiteko diru-laguntzak 75.000 €-ko zuzkidura izango du**

Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio GOGORA – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak egindako laguntzen deialdiari. Zehazki, **bi dirulaguntza mota** onartu dira, 212.500 eurokoak.

Lehendabizikoak 137.500 euroko zuzkidura du, diruz ekimen hauexek laguntzeko: Memoria Historikoa berreskuratzeko egitasmoak, Memoriaren Ibilbideen sorrera eta sinbologia frankista kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek egitekoa.

Zehazki, laguntzek honako jardun hauek sustatuko dituzte:

- Tokian tokiko ikerketa-jardunak, gerra zibileko eta diktadurako errepresioari, erbesteari eta balio demokratikoen egoera eta errealitateari lotutako jazoerak berreraiki eta prozesuak dokumentatzen dituztenak.
- Oroimen-ospakizun edo omenaldiak, errepresioaren, erresistentziaren eta gizarte demokratikoa eraiki duten pertsonen eta jazoeren ingurukoak.
- Zabalkunde-jardunak: jardunaldiak, mintegiak eta aldi baterako erakusketak, ikus-entzunezko produktuak eta ikerlanen argitalpenak.
- Altxamendu militarra, gerra zibila eta diktadurako errepresioa, orotara edo norbanakoen bidez, goستن dituzten armarrak, intsigniak, plakak, bustoak edo omentzeko diren beste objektu edo aipamenak kentzeko jardunak.
- Memoria Historikoaren ibilbideak sortu eta garatzeko jardunak, bertan sartuz espazioan bat datozen Euskadiko Memoria Historikoko toki bi edo gehiago biltzen dituzten multzoak, betiere historiaren edo sinbologiaren aldetik interpretazio-irizpide komunekoak. Ulertzen da Euskadiko Memoria Historikoko Leku bat dela Autonomia Erkidegoarentzat interesa duen espazio, higiezin edo ingurune bat, bertan garrantzi bereziko zerbait gertatu zelako, esanahi historiko edo sinbolikoa duelako edo, balio eta askatasun demokratikoak defenditzearren, memoria kolektiboan aztarna utzi duelako.

Bigarren dirulaguntza mota liburu berriak eta dokumentalak egitera bideratuko da, gaitzat hartuta Euskadiko memoria demokratikoa berreskuratzea, Gerra Zibiletik hasi eta gaur arte. Horretarako, 75.000 € bideratu dira.

Gaia, hala liburuetan nola dokumentaletan, memoria historikoan zein memoria berrienean egia berreskuratu eta argitzea izango da, betiere giza eskubideak babestearen eta horien urraketa salatzearen ikuspegitik. Egitasmo bakoitzak 5.000 euroko dirulaguntza izango du gehienez liburuetarako, eta 10.000 eurokoa dokumentaletarako.

Bi laguntza mota horiek eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, eta egitasmo guztiak 2020ko abenduaren 31rako egongo dira amaituta.

EHAAn argitaratutakoan, eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeari buruzko zehaztapenak euskadi.eus egoitza elektronikoan egongo dira eskueran, eta Gogoraren webgunetik ere sar daiteke.

Elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Gaur onartutako bi dirulaguntza motak joan den apirilaren 14an onartutako beste bati gehituko zaizkio. Dirulaguntza horretan, 112.500 € bideratu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta 1936-1977 aldiko memoria historikoa eta demokrazia eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratu, ikertu eta zabaltzen dituzten egitasmo espezifikoak finantzatzeko, memoria historikoko elkarteek eta fundazioek egitekoak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

JAURLARITZAK ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO DEKRETUA ALDATU DU, ERABAT DIGITALA DEN ADMINISTRAZIOAN AURRERA EGITEN JARRAITZEKO

- **“Otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, Administrazio elektronikoi buruzkoa”, aldatzen den bigarren aldia da, zazpi urtez indarrean egon ondoren**
- **Herritarrek eta enpresek prozeduretan ez dute aurkeztu beharrik izango beste administrazio baten esku dagoen jatorrizko dokumenturik**
- **Testuaren helburu nagusia da paperik gabeko administrazioa, gardena eta arina, herritarrentzat irisgarria dena, lortzea**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du “*Dekretu-proiektua Administrazio elektronikoi buruzko dekretuaren bigarren aldaketarena*”. Gaur onartu den testuak administrazio elektronikoa lehenbiziko aldiz arautu zuen 2012ko dekretua aldatzen du. Dekretua aldatzen den bigarren aldia da, eta lehenengo aldaketa 2015ean egin zen, egoitza elektronikoen helbidea euskadi.eus domeinura aldatzeko. Dekretuaren bidez lortu nahi da izapidetze elektronikoa izatea hemendik aurrera jarduteko ohiko modua eta, era horretara, izapideak paperean egitea baztertu ahal izatea. 2012an “*Administrazio elektronikoi buruzko dekretua*” onartu zenetik, pixkanaka aurrera egin da administrazio publikoan baliabide elektronikoa erabiltzea sustatzeko bidean. Horrez gainera, azken aldiak egindako lege-aldaketek eskatzen zuten aldaketak egitea administrazio elektronikoen hainbat arlotan.

Horrela, artikulua bakarra duen dekretuaren helburua da herritarrek, zerbitzu publikoak baliatzeko edo administrazio-prozedurak izapidetzeko orduan, administrazioarekin dituzten harremanetan baliabide elektronikoa erabiltzeko duten eskubidea garatzea. Testuak, bestalde, zerbitzu publikoak ematean eta izapidetzen diren administrazio-prozeduren kudeaketan administrazio-jardunerako funtsezkoak diren beste hainbat gai ere arautzen ditu, besteak beste:

- Egoitza elektronikoa.
- Iragarki-ohol elektronikoa.
- Herritarrak eta administrazioa nola identifikatu eta haien jarduna nola autentifikatu.
- Ahalordearen erregistro elektronikoa.
- Erregistro elektronikoa.
- Komunikazio elektronikoa.
- Agiri elektronikoa eta agiri horiek nola gorde behar diren.

E- ADMINISTRAZIOA

Gobernu Kontseiluak onartutako testuak ahalbidetuko du herritarrek, administrazioarekin jardutean, jatorrizko agiririk, beste edozein administrazioaren

esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumenturik edo landutako daturik, aurkeztu beharrik ez izatea.

Horrela, paperik gabeko administrazio garden eta arinago bat, herritarrentzat eta enpresentzat irisgarriagoa den administrazio bat, lortu nahi da, eskubideak gauzatzea eta prozeduren balio juridikoa erabat bermatuta. Horrez gainera, administrazioak behartu dezake, prozedura jakin batzuetarako, berarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak soilik erabiltzea.

Dekretuak jasotzen duen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organo guztiak egongo dira [egoitza elektronikoaren](#) barruan, eta lankidetzahitzarmenen bidez beste administrazio publiko batzuekin batera erabiltzeko egoitzak sortu ahal izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko administrazio elektronikoaren arloko zerbitzu komun hauek egongo dira erabilgarri egoitza elektronikoan: erregistro orokorra, ahalordeen erregistro orokorra, izapide elektronikoak eta benetako kopiak egiteko gaitutako funtzionarioen erregistroa, egoitza elektronikoko prozeduren fitxak, identifikazio eta sinadura sistemak, izapideen kudeatzailea, eredu espezifikoaren kudeatzailea, prozedurei hasiera emateko eskaeren aurkezpen masiborako sistemak, jakinarazpena, herritarren karpeta, artxibo bakarra, ordainketa-pasabidea, datuak eta dokumentuak egiaztatzeko zerbitzuak, datu-bitartekaritarako plataforma, iragarkien oholak, zerbitzuen katalogoa eta kexen eta iradokizunen postontzia. Horrez gainera, sortzen joan ahala joango dira zerbitzuak gehitzen.

HERRITARRAK ORDEZKATZEKO GAIKUNTZA

Herritarrak ordezkatzeko gaikuntzaren kasuan, horretarako eskumena duen organoak egingo du, era horretara, interesdunek beste pertsona batzuk ordezkari modura jar ditzaketan administrazio-prozedurak ebatzi ahal izateko. Gaikuntzarako beharrezkoa izango da ordezkari gaitua izendatu dela zehaztea, bai eta gaikuntza zein izapidetarako eta prozeduratarako den ere.

Gainera, hemendik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko ahalordeen erregistro elektroniko orokorra sortuko da. Erregistro hori ez da publikoa izango eta nahitaez jasoko dira administrazio-prozeduretan interesa duten pertsonen hirugarren pertsona ordezkari administrazio publikoen aurrean euren izenean jarduteko *apud acta*, aurrez aurre edo elektronikoki emandako ahalorde orokorrak behintzat.

ESKABIDE DINAMIKOAK

“Administrazio elektronikoari buruzko dekretuaren bigarren aldatetaren dekretua” onartzen denetik aurrera, administrazioak eskabideen eta gainerako dokumentuen eta izapideen eredu elektronikoak jarriko ditu interesdunen eskura egoitza elektronikoan. Gainera, prozedurei hasiera emateak ahalbidetuko du zati dinamiko elektronikoak sartzea, bai eta automatikoki egiaztatzea ere emandako informazioa. Interesa duten pertsonen prozeduren izapidea zertan den jakiteko informazioa ere kontsultatu ahal izango dute.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

IVAPEK 20.000 EUROKO BI LAGUNTZA EMANGO DITU ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN, ZUZENBIDE PUBLIKOAREKIN EDO ADMINISTRAZIO-ZIENTZIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIEI BURUZKO IKERKETA ONENENTZAT

Gobernu Kontseiluak, gaur, 2020-2021erako Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko bi laguntzen deialdia onetsi du. Helburua “*ikerketa-arlo horiek suspertzea eta, burutuko diren lanen bitartez, EAEko administrazio publikoen eraginkortasuna eta efizientziar areagotzea*” da.

Guztira, IVAPek 20.000 euro bideratuko ditu IVAPen Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuak esleitu eta kudeatuko duen laguntza bakoitzerako.

Laguntzak IVAPen “[2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa](#)”n sartzen dira, eta hilabetez eskatu ahalko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnetik. Elektronikoki izapidetu beharko dira, IVAPen orrialdean (www.ivap.euskadi.eus).

IVAP

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) xedeetako bat honako hau da: “*Euskal Herriko Herri-Arduralaritzen azterpena, irakaskuntza eta horien legearen, dirubideen eta estatistikaren aldeetatikako bereizitasunak ezagutaraztea; eta Arduralaritza-Zientziari buruzko ikerketa, irakaskuntza eta ezagutaraztea, eta Euskal Herriko Arduralaritza berezietan sarraraztea*”.

Hezkuntza

1,3 MILIOI EURO IKASTETXEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia egiten duen Agindu bat, hauek euren hizkuntza-proiektuak gara ditzaten. Deialdi honek 1.332.000 euroko diru kopurua du.

Aipaturiko ikastetxe horiek deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte baldin eta, 2020-2021 ikasturtean berrikuntza-proiektuak egiten badituzte ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko modalitate hauetakoren batean:

- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, irakurketa-plana lehentasuntzat hartuta eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren ikuspuntutik garatuta.
- Ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztuna, euskara ardatz hartuta eta curriculum-alor edo gaiak atzerriko hizkuntzetan irakastean zentratuta.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira irakasleen prestakuntza jarduerak, beti ere ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei loturikoak. Hala nola:

- Prestakuntza-jarduerak, Irakurketa Planaren diseinuari eta garapenari lotuak.
- Prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmena garatzen laguntzeko metodologia aktibo eta berritzaileekin zerikusia dutenak (batez ere, euskaraz).
- Prestakuntza-jarduerak, euskararen (eskolatze-hizkuntza) tratamendu didaktiko espezifikoa sendotzekoak, bai eskolatze-aldiko lehen urteetako egokitzapen didaktikoak definitzeko, bai hizkuntzakoak ez diren arloetan hizkuntzen tratamendu integralean sakontzeko.
- Prestakuntza-jarduerak, alor eta gai guztietako irakasleei zuzenduak, ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapena hobetu eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integralari ekiteko.
- Prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, metodologia aktibo eta berritzaileak garatzeko, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatze aldera.

Deialdi honek 1.332.000 euroko zenbatekoa du orotara. Nortasun juridikoa eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu edo araudi-harremanak dituzten federazio edo elkarteek izango dute dirulaguntza horiek jasotzeko aukera. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe

eta estatu mailako ikastetxeek osatu ahal izango dituzte federazio edo elkarte horiek, baina estatu mailako ikastetxeek osatutakoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza, hizkuntza-proiektua Euskadiko ikastetxeetan gauzatu beharko dute, hiru ikastetxe gutxienez EAEn izan beharko dituzte kokatuta eta itunpeko gela guztizkoa 50ekoa edo 50etik gorakoa izan beharko dute.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 169.600 EURO BIDERATU DITU LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA IKASTAROETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeetan irakasleentzat burutzen dituzten prestakuntza-jarduerak diruz laguntzen dituen Agindua onartu du. Prestakuntza-jarduera horiek 2020-2021 ikasturtean burutuak izan beharko dute.

Deialdi honek 169.600 euroko diru kopurua du. Ikastetxe bakoitzak jaso dezakeen dirulaguntzarik handiena 32.000 eurokoa izango da, hautatutako prestakuntza-jarduera guztiengatik. Deialdian parte hartu ahal izango dute, Euskadin Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxe pribatuek.

Laguntza hauek eskatzeko interesa duten ikastetxeek, eskaintzen dituzten heziketa-zikloekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak aurkeztu beharko dituzte deialdira. Prestakuntza-jarduera bakoitzak gutxienik 10 orduko iraupena izan beharko du, eta 35 ordukoa gehienez.

Hurrengo ikasturteari begira, besteak beste, honako arlo hauekin loturiko prestakuntza-jarduerak bultzatuko dira: lanbide-espezializazioko programak ematea; lanbide-orientazioa; metodologia aktibo-kolaboratiboak aplikatzea prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan; teknologia aurreratuak erabiltzea prozesu horietan eta edozein espezialitatetako irakasleen artean ekintzailtzaren kultura indartzen duten ekintzak; edo STEAM kultura. Beraz, irakasleek irakasgai horietako batean dituzten gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-ekintzek puntuazio handiagoa izango dute eskabideak baloratzean.

Honako gastu hauek ordaintzeko erabili beharko dira deialdi honen bidez jasotako laguntzak: ikastetxez kanpoko adituak kontratatzeak eragindako gastuak, edo prestakuntza-jardueretarako berariaz eskuratutako materialen gastuak ordaintzeko. Jasotako dirulaguntzak bateraezinak izango dira helburu berbera duten beste deialdi batzuetatik jasotako laguntzekin.

Osasuna

OSASUN SAILAK AURTEN 300.000 EURO BIDERATUKO DITU GIB/HIESA, C HEPATITISA ETA SEXU-TRANSMISIOKO INFEKZIOAK PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO LANAK EGITEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETARA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen Nekane Murga Osasuneko sailburuaren aginduan, 2020an Euskadin GIB/hiesa, C Hepatitisa eta Sexu-transmisioko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak garatuko dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei laguntzak emateko deialdia egiten da, zenbatekoa 300.000 eurokoa izanik.

Horrela, Osasun Sailak aurtan ere sustatuko du GIB/hiesaren, C Hepatitisa eta STIen alorrean erakunde horiek Euskadin egiten duten funtsezko lana, ezinbestekoa dena, administrazio publikoek burutzen duten jarduerarekin batera, infekzio horien transmisioa prebenitzeko eta dagoeneko birus-eramaileak diren pertsonen egoera hobetzeko.

Presidencia

APROBADAS AYUDAS POR 212.500 € PARA PROYECTOS DE RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA Y DEMOCRÁTICA DE EUSKADI

- Se destinan 137.500€ a proyectos de recuperación de la Memoria Histórica, la configuración de Itinerarios de la Memoria y la retirada de simbología franquista llevados a cabo por municipios y entidades locales
- La subvención para impulsar la publicación de libros y realización de audiovisuales sobre la recuperación de la memoria democrática está dotada con 75.000€

El Gobierno Vasco ha dado hoy luz verde a dos nuevas convocatorias de ayudas del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos-GOGORA. En concreto, se han aprobado **dos líneas de subvenciones** para proyectos de recuperación de la Memoria Histórica y Democrática de Euskadi, por un total de 212.500 euros.

La primera de ellas, dotada con 137.500 euros, está destinada a subvencionar la realización de proyectos de recuperación de la Memoria Histórica, configuración de Itinerarios de la Memoria y retirada de simbología franquista desarrollados por municipios y demás entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En concreto, las ayudas se dirigirán a promover:

- Actuaciones de investigación local dirigidas a la reconstrucción de hechos y a documentar los procesos relacionados con la represión de la guerra civil y la dictadura, con el exilio, y la realidad y la situación de los valores democráticos.
- Actuaciones conmemorativas o de homenaje de personas y de acontecimientos relacionados con la represión, la resistencia y la construcción de la sociedad democrática.
- Actuaciones de difusión: jornadas, seminarios y exposiciones temporales, productos audiovisuales y edición de publicaciones de investigaciones.
- Actuaciones encaminadas a la retirada de escudos, insignias, placas, bustos u otros objetos o menciones conmemorativas de exaltación, personal o colectiva, de la sublevación militar, de la guerra civil y de la represión de la dictadura.
- Actuaciones de configuración y desarrollo de itinerarios de Memoria Histórica, entendidos estos como el conjunto de dos o más lugares de Memoria Histórica de Euskadi que coincidan en el espacio y tengan criterios interpretativos comunes de carácter histórico o simbólico. Se entiende por Lugar de Memoria Histórica de Euskadi aquel espacio, inmueble o paraje que revele interés para la Comunidad Autónoma, por haberse desarrollado hechos de singular relevancia, por su significación

histórica, simbólica o por su repercusión en la memoria colectiva, vinculados con la defensa de los valores y las libertades democráticas

La segunda línea de subvenciones está destinada a promover la publicación de libros nuevos y la realización de documentales que aborden la recuperación de la memoria democrática de Euskadi, desde la Guerra Civil hasta la actualidad. Para ello, se han destinado 75.000 €.

La temática, tanto en libros como en documentales, estará relacionada con la recuperación y la clarificación de la verdad de la memoria histórica y memoria reciente, desde la perspectiva de la defensa de los derechos humanos y la denuncia de su vulneración. Cada proyecto tendrá una ayuda máxima de 5.000 euros en el caso de los libros y de 10.000 euros en el de los documentales.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a estas dos líneas de ayudas será de un mes a contar desde el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y todos los proyectos deberán estar culminados para el 31 de diciembre de 2020.

Una vez que se publiquen en el BOPV, las especificaciones sobre cómo tramitar las solicitudes, declaraciones responsables, justificaciones y demás modelos estarán disponibles en la sede electrónica de euskadi.eus a la que se puede acceder también desde la web de Gogora.

Subvenciones destinadas a asociaciones y fundaciones

Las dos líneas de subvenciones aprobadas hoy se suman a la aprobada el pasado 14 de abril en la que se han destinado 112.500 € para que asociaciones y fundaciones dedicadas a la memoria histórica puedan financiar proyectos específicos dirigidos a la recuperación, investigación y difusión de la memoria histórica y de la lucha por la democracia y la libertad durante el periodo comprendido entre 1936-1977 en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO MODIFICA EL DECRETO DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA PARA SEGUIR AVANZANDO HACIA UNA ADMINISTRACIÓN PLENAMENTE DIGITAL

- Es la segunda modificación del “*Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica*” tras siete años de vigencia
- La ciudadanía y las empresas no tendrán que aportar a sus procedimientos documentos originales que ya estén en poder de otra Administración
- El objetivo final del texto es lograr una administración sin papeles, transparente, ágil y accesible para la ciudadanía

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el “*Proyecto de Decreto de segunda modificación del Decreto de Administración Electrónica*”. El texto aprobado hoy modifica el decreto de 2012 que reguló, por primera vez, la administración electrónica. Es la segunda modificación de este decreto tras la realizada en 2015 para cambiar la designación de la dirección de la sede electrónica a euskadi.eus. El decreto busca conseguir que la tramitación electrónica sea ya, la forma habitual de operar y poder descartar así, la tramitación en papel. Desde la aprobación del “*Decreto de Administración Electrónica*” en el 2012 se ha ido avanzando en la promoción del uso de los medios electrónicos en la Administración Pública. Además, cambios legislativos producidos recientemente requerían cambios en relación con las materias de Administración Electrónica.

Así, el objetivo del decreto, que consta de un único artículo, es desarrollar el derecho de la ciudadanía a relacionarse con la Administración, por medios electrónicos, para acceder a los servicios públicos y para la tramitación de los procedimientos administrativos. El texto regula, también, materias fundamentales para la actuación de la Administración en la prestación de servicios públicos y en la gestión de los procedimientos administrativos que tramita como:

- La sede electrónica.
- El tablón electrónico de anuncios.
- La identificación y autenticación de la ciudadanía y de la Administración.
- El registro electrónico de apoderamiento.
- El registro electrónico.
- Las comunicaciones electrónicas.
- Los documentos electrónicos y su conservación.

E-ADMINISTRACIÓN

El texto aprobado por el Consejo de Gobierno posibilitará que las personas se puedan relacionar con la Administración sin necesidad de aportar los documentos originales, los datos y documentos que se encuentren en poder o que hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Así, se quiere llegar a una

administración sin papeles, transparente y más ágil y accesible para la ciudadanía y las empresas con la garantía plena del ejercicio de los derechos y la validez jurídica de los procedimientos. Además, la Administración, podrá obligar a comunicarse con ella utilizando únicamente medios electrónicos para determinados procedimientos.

Como recoge el decreto, en la [sede electrónica](#) estarán incluidos todos los órganos del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y mediante convenios de colaboración se podrán crear sedes compartidas con otras Administraciones Públicas.

Los servicios comunes de administración electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi disponibles en la sede electrónica serán: el registro general, el registro general de apoderamientos, el registro del personal funcionario habilitado para tramitación electrónica y para expedir copias auténticas, las fichas de los procedimientos en la sede electrónica, los sistemas de identificación y firma, el gestor de trámites, el gestor de modelos específicos, los sistemas de presentación masiva de solicitudes de iniciación de los procedimientos, la notificación, la carpeta ciudadana, el archivo único, la pasarela de pagos, los servicios de verificación de datos y de documentos, la plataforma de intermediación de datos, el tablón de anuncios, el catálogo de servicios y el buzón de quejas y sugerencias. Además, se podrán añadir nuevos servicios que se vayan creando.

HABILITACIÓN PARA LA REPRESENTACIÓN

En el caso de la habilitación para la representación será el órgano competente el que lo efectúe para poder así resolver los procedimientos administrativos en los que se vaya a otorgar la representación por las personas interesadas. Para la habilitación será necesario especificar la designación de representante habilitado, incluyendo los procedimientos y los trámites objeto de la habilitación.

Además, a partir de ahora, se crea el registro electrónico general de apoderamientos, que no tiene carácter público, de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el que constarán inscritos obligatoriamente al menos, los apoderamientos de carácter general otorgados apud acta, presencial o electrónicamente, que las personas interesadas en los procedimientos administrativos otorguen a terceras personas representantes para actuar en su nombre ante las Administraciones Públicas.

SOLICITUDES DINÁMICAS

A partir de la aprobación del *“Decreto de segunda modificación del Decreto de Administración Electrónica”* la Administración pondrá a disposición de la persona interesada modelos electrónicos de solicitud y del resto de documentos y trámites en la sede electrónica. Además, la iniciación de procedimientos posibilitará incluir partes dinámicas electrónicas, así como comprobar automáticamente la información aportada. Las personas interesadas podrán consultar la información acerca del estado de la tramitación de los procedimientos.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL IVAP CONCEDERÁ DOS AYUDAS DE 20.000 EUROS A LAS MEJORES INVESTIGACIONES SOBRE TEMAS RELACIONADOS CON LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA, EL DERECHO PÚBLICO O LA CIENCIA DE LA ADMINISTRACIÓN

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la convocatoria de dos ayudas destinadas al fomento de la investigación sobre temas relacionados con la Administración Pública, el Derecho Público o la Ciencia de la Administración para el periodo 2020-2021. El objetivo es *“dinamizar estos campos de estudio y proporcionar una serie de trabajos cuyo resultado pueda repercutir de forma mediata en la eficacia y eficiencia de las Administraciones Públicas Vascas”*. Las ayudas se concederán a grupos de investigación consolidados o formados ad hoc.

En total, el IVAP, destinará 20.000 euros para cada una de las ayudas que adjudicará y gestionará el Servicio de Estudios y Publicaciones del IVAP.

Las ayudas, enmarcadas en el [“Plan Estratégico de Subvenciones 2020”](#) del IVAP, se podrán solicitar durante un mes desde su publicación en el BOPV y se deberán tramitar electrónicamente en la página del IVAP, www.ivap.euskadi.eus

IVAP

Entre los fines del Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, se encuentra *“la investigación, docencia y difusión de las peculiaridades jurídicas, financieras y estadísticas de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como la investigación, docencia y difusión de la ciencia de la Administración y su implantación en las diversas Administraciones del País Vasco”*.

Educación

1,3 MILLONES DE EUROS PARA EL DESARROLLO DE PROYECTOS LINGÜÍSTICOS DE CENTRO

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones destinadas a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con centros privados concertados que imparten Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, que durante el curso 2020-2021 realicen proyectos de innovación para el desarrollo de un Proyecto Lingüístico de centro. Esta convocatoria cuenta con un importe global de 1.332.000 euros.

Los citados Proyectos Lingüísticos de centro podrán desarrollarse en alguna de las siguientes modalidades:

- Proyecto Lingüístico de centro con el Plan Lector como prioridad y desarrollado desde la perspectiva de tratamiento integral e integrado de las lenguas.
- Proyecto Lingüístico de centro de carácter plurilingüe con el euskara como eje, centrado en la impartición de áreas o materias curriculares en lenguas extrajeras.

Serán subvencionables mediante esta convocatoria de ayudas aquellas actividades de formación del profesorado vinculadas a proyectos de innovación para el desarrollo del Proyecto Lingüístico:

- Actividades formativas vinculadas al diseño y desarrollo del Plan Lector.
- Actividades formativas relacionadas con metodologías activas e innovadoras para favorecer el desarrollo de la comprensión lectora en el alumnado, especialmente en euskera.
- Actividades formativas dirigidas a afianzar un tratamiento didáctico específico del euskera (lengua de escolarización) tanto para definir adaptaciones didácticas en los primeros años de escolaridad como para profundizar el tratamiento integral de las lenguas en las áreas no lingüísticas.
- Actividades formativas dirigidas al profesorado de todas las áreas y materias para mejorar el desarrollo de la competencia comunicativa del alumnado y abordar el tratamiento integrado e integral de lenguas.
- Actividades formativas relacionadas con la enseñanza de lenguas y de materias impartidas en lengua extranjera, para desarrollar metodologías activas e innovadoras que promuevan el tratamiento integrado e integral de lenguas.

Podrán acogerse a estas subvenciones, por un importe global de 1.332.000 euros, las federaciones o asociaciones de centros concertados de enseñanza no universitaria, ya estén constituidas exclusivamente por centros privados de la

Comunidad Autónoma del País Vasco, ya sean de ámbito estatal, si bien éstas últimas deberán contar con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco y desarrollar el proyecto lingüístico en centros del País Vasco y, contar, asimismo, con un mínimo de tres centros ubicados en la CAPV y un número total de aulas concertadas igual o superior a 50.

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 169.600 EUROS PARA CURSOS DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO DE CENTROS CONCERTADOS DE FP

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones a centros docentes concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional, para la realización de actividades de formación de su profesorado, durante el curso 2020-2021.

La convocatoria de estas ayudas cuenta con un importe económico de 169.600 euros. La cuantía máxima de la subvención será de 32.000 euros por centro por todas las actividades de formación que hayan sido seleccionadas.

Los centros interesados en estas ayudas deberán presentar actividades de formación vinculadas a los ciclos formativos que se imparten en el centro. Cada actividad formativa deberá contar con un mínimo de 10 y un máximo de 35 horas. Podrán participar en esta convocatoria todos aquellos centros privados concertados autorizados oficialmente para impartir ciclos formativos de FP en Euskadi.

De cara al próximo curso académico se impulsarán, entre otras, las actividades de formación en relación las siguientes áreas: la impartición de programas de especialización profesional; la orientación profesional; la aplicación de metodologías activo-colaborativas en los procesos de formación y aprendizaje; la utilización de tecnologías avanzadas en dichos procesos y aquellas acciones que refuercen la cultura del emprendizaje en el profesorado de cualquier especialidad; o la cultura STEAM. Por tanto, las acciones formativas que contribuyan a la mejora de las competencias del profesorado en alguna de estas materias tendrán una ponderación mayor en la valoración de solicitudes.

Las ayudas concedidas se destinarán a sufragar gastos derivados de la contratación de personas expertas para la formación –ajenas al centro solicitante- o a los gastos derivados de la compra de materiales específicos para las actividades formativas. Las subvenciones concedidas serán incompatibles con las que se pudieran obtener de otras convocatorias que tengan el mismo objeto.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD DESTINA ESTE AÑO 300.000 EUROS A ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO QUE TRABAJAN EN LA PREVENCIÓN Y EL CONTROL DEL VIH/SIDA, LA HEPATITIS C Y LAS INFECCIONES DE TRANSMISIÓN SEXUAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Orden de la Consejera de Salud, Nekane Murga, por la que se convocan ayudas dirigidas a entidades de iniciativa social y sin ánimo de lucro que desarrollen durante 2020 actividades de prevención y control del VIH/sida, Hepatitis C y de las Infecciones de Transmisión Sexual (ITS) en el ámbito de Euskadi, por importe de 300.000 euros.

El Departamento de Salud mantiene así un año más el impulso a la tarea esencial que llevan a cabo en Euskadi estas organizaciones en el campo del VIH/sida, la Hepatitis C y las ITS, imprescindible junto a la acción de las distintas administraciones públicas para prevenir la transmisión de estas infecciones y mejorar la situación de las personas ya portadoras del virus.